

“PRINCIPE DE VIANA”

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA


Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Irugarren Urtea. Pamplona. Enero. 1968. Ilbeltza. Iruña. 23gn. zenbakia.

DIRECTOR: J. E. URANGA

MANEZAUNDI-REN OMENALDIA



har zuen amaren seme ginela esateak. Ortako egin zuen iges «Aitzurre» izeneko baserrira; ortako egon zen Frantzira joatekotan; ortako, orai-ko festak ikusi ta, gure baserritarren arridura. Auxe da mundu errebesa eta nahasia!

Gazteok ez dakigu alakorik. Edo ez dugu gehiegi jakin nahi. Geroari begiraten diogu, atzoari baño len. Bizi-legea da berritzea; eta berrituz joan nahi ginuke eskual giroa.

Eta etzen azaleko festa, itxura ta gezurra, begien betegarri bat. An ginen eskualdunak —Euskaltzaindia barne—, loriaturik atera ginen Diputazioak egin zigun ongi-etorri biotzkorrez. Esaten den guzia ez da aski.

Duela bederatzi bat urte, Enrique Zubiri, gure idazlearen lanak argitaratzea erabaki zuen gure Diputazioak. Liburu orri esker du Eskualerriak ezagutzen. Orai, festa onekin, zor aundi bat ordaindu dugu Naparroan. Eta nola diren gauzak! Felix Huarte, gure Diputazioko lendakaria, Manezaundirekin ikasle bezala eskolan ibilia!! Berak jakin gabe, maisuaren goratzale gertatu da.

Mundua ain errebesa dela diotenen istillua dago orai; gure erritako eskualdunak konturatuko ote dira agintariak, jakintsuak, eta biotz oneko jendeak eskuararen alde daudela? Ba dira erritan, beti izan dira eta izango ere, gizajoak; beren gauzak anka azpian ezin sartuz dabilten gizajoak. Zer irabazten dute beren burueri arrika ematearekin?

Urmeneta jaunak lengoan ziona esango nuke nik: «Ama elbarriena ere ez du seme batek iñola baztarten». Eta euskera, ama-semen istillua bezala da. Orrek lotzen gaitu aurrekoekin...

Manezaundi biritubalitz poztu egingo zen, —bere festa ez ikusigatik—, eskual giro au ikusita. Zertako ez poztu gu? Gizon aundiak baño gehiago al-gera, gizajuok!

J. M. SATRUSTEGUI

Auxe bai mundu errebesa! —zioten lengoan gizajo baserritar batzuk—; len eskualduna ain gaizki ikusia eta orai festa festaren gainean, zerruraino jaso nahian... Ez al gera ba gu, lengoak? Naiko burla egin ondoan... orai festa?

Bizi zela esan behar, Manezaundi'ri, festa egingo geniola Naparroan! Etzuen sinetsiko sekula. Diputazio'ko gela oberenean, berak egindako margol (pintura) eder baten aurrean egin zai-kela, ametsa idurituko zakion. Eskual idazle bezala aipamen berezia izango zuela jakin ahal izan balu, negar egingo zuen; bere biziko negar beroena. Pozaren pozez biotza lertzearen negarra.

Bere denboran etzen orai bezala: arrisku aundiko gauza zen eskualdun izatea. Bildur eman be-



MIGEL GORTARI ERREA



JAUNA IL DA!

Ilbeltzaren bigarrean etorri zitzaigun berri mingarri au: Lehengo Nafarroko Diputazioaren Lendakari izan zen Migel Gortari Errea Yaunaren eriotza.

Gortari yauna gaurko Diputazioak «Nafarroko Seme Berezi eta Kuttuna» izendatu zuen.

Guk, Euskararen aldeko Saillan gaudenok, ezdugu ahaztu berak «Euskeraren Alde Sailla» au sortu eta eratu zuela.

GOYAN BEGO napar seme aundi au.

URTEBERRI!!

Paper txuria eskuani, ez dakit betetzen asi edo utzi. Ez du ezer idatzirik gainean; edo obeki esana, etzuen ezer; orai bai. Garbi zegola esateko, garbia izatetik utzi du nere paperak.

Zer da denbora? Zer dira orduak, eta egunak? Ixil ixila betetzen ari dazkigun orri txuriak. Ba dira estu estuan beteak; eta ba dira utsak, alperkeria dariotela. Eta bizian bein erretako paperak itzultzerik ez eskutara! Betiko joanak.

Zerbait egin nahi duenak ba ditu bere kezkek paper txurien aurrean: amets aundiak eta bildurra.

Zenbat biotzen lokarri goxoa izan daiken paper gainean idatzia! Egilearen arnasa agoz ago sartzea bezela. Zenbat asmo ederren aita! Ago beteko ezti gozua daramaten lerroak, ba dira; baño, eztiak zurrun-burrin iluna sortzen ere ba daki bere inguruan. Eta erle xixtada minak... Ain gutxi aski da norbait mindurik uzteko!

Idazleari orri txuriak ekartzen dizkion kezkek berekin ditu Urteberriak. Nork daki aren berri? Nekazariaren ereitea bezela bizi naiaren ametsaz jantzia; uztan ditu ereileak begiak. Lenago, negu gogorra eta ormak. Eta beharbada azia galtzea... Arrixkuz betea da gure bizia.

Eta «Príncipe de Viana» gure aldizkariak irugarrena du Urteberri au. Beste batzutan bezela, galdera bera egin lezake: balio ote du ereiteak?

Ba dakit eskualdunok ez gerala oso leitzale; ez gera iñoiz izan. Leituko ote naute? Asieran zen; gizon kaiku bat izketan: —«Nik etzakiet zertako dabilten beren euskerakin. Bialtzen duten paper ori bezela! Nik ezin leitu diat; artu ta suari botatzen ziot...» (gerra egin zutenetakoa eta ago zabala).

Andik denboraren buruan nun asten den gertaera baten berri ematen. Konturatu ziren erritarrak nun leitua zuen, eta esaten dio gazte batek:

—Zer!! Asi al zera euskeraz leitzen?

—...gauza politik ekartzen tik eta begiratu bat egiten ziot.

Gure egitekoa ongi betea laike Naparroko eskualdunen artean eskuaraz leitzeko giroa sortuko ba ginu. Sari oberena ginuke. Gure jendea ikasiago balitz, euskera, iltzeko arriskutik kanpo legoke. Alemanen eskutan erori balitz! Etzen, ez galduko!

Urteberri! eskuararendako ere orri txuri. Aurrera egiteko...? Hiltzen joateko? Ain kaiku ez ba gina...


¿El vascuence a la Escuela?

Los lectores de este periódico han podido conocer en estas mismas columnas la petición elevada recientemente por la Academia de la Lengua Vasca al Ministerio de Educación y Ciencia, en orden al cultivo y la enseñanza del «euskera» en los centros docentes del Estado.

Quien examine detenidamente el contenido de este escrito podrá comprobar el carácter modesto y realista de las medidas que en el mismo se solicitan. Nada se pide en él que pueda tener un carácter impositivo o molesto, nada que exija gastos importantes o medidas legislativas de realización difícil.

Ya que tantas veces se nos han regalado los oídos en declaraciones públicas con frases elogiosas hacia esta «lengua multiseccular», «verdadero monumento nacional», «reliquia la más venerable de la antigüedad hispana», es de esperar que esta vez se logre alguna contribución práctica para su conservación efectiva en el mundo de los vivos.

Nada sabemos del porvenir que le está reservado al vascuence, ni si se cumplirán o no los vaticinios



de Unamuno que anunciaban para él una muerte cierta y próxima.

El hecho es que aún vive y que estamos asistiendo incluso a un modesto renacimiento —muy modesto— de las letras vascas.

Pero este renacimiento, o lo que

sea, de nada servirá si la inmensa mayoría de los niños «euskaldunes» no reciben en la escuela una formación mínima para que puedan ser algo más que unos analfabetos en su propia lengua materna.

No ignoro, claro está, que el problema tiene cierta trastienda o cierta dimensión política, siempre mal entendida a mi juicio y que el ciudadano español medio, falto de una formación adecuada y verdaderamente serena sobre el particular, reacciona mal ante la idea de la supervivencia de otras lenguas peninsulares que no sean el castellano. Ese trabajo de información es también un quehacer que debería ser acometido por todos los que, en un modo o de otro, tenemos una responsabilidad cultural en este asunto.

Para mí, el planteamiento lógico del problema no puede ser más claro ni más simple. Por una parte, está el razonable deseo de muchos vascos de conservar su lengua familiar, de enseñarla a sus hijos y de proporcionar a éstos los medios docente necesarios para que lleguen a leerla y escribirla con suficiente antelación.

Este deseo no sólo es legítimo, sino que honra a los que lo profesan. Porque no hay verdadera cultura ni verdadero sentimiento patrio que no arranque del conocimiento y del amor de los propios valores naturales inmediatos, aquellos que cada uno tiene más cerca dentro de sí mismo. Lo demás no es sino «ideologismo» puro y hay que referirlo a uno cualquiera de esos «ismos» que tan azotadamente martillean al hombre de hoy.

En segundo lugar, está el deber de los Estados de proteger el patrimonio cultural de cada pueblo y de aportar asimismo los medios necesarios para que los padres puedan realizar fines tan nobles y justos como el que acabamos de indicar.

Con estas dos premisas la conclusión parece obligada.

Claro está que todo tiene sus límites. Si lo que ahora se pide exigiera una legislación costosa, complicada, lesiva para otros ciudadanos menos interesados en esta clase de problemas, se comprendería que se dilatase algo la adopción de tales medidas.

Pero no es ese el caso, según creemos. Dada la moderación de lo que se propone no encontramos en él repertorio de posibles excusas ninguna que pueda parecernos válida.

Quizás esas medidas resulten también inútiles. Quizás la vieja lengua, como tantas otras cosas bellas y hermosas de este mundo, esté destinada a ser arrastrada por los vientos despiadados de la civilización técnica que padecemos. Esto, repito, no lo sabemos.

Lo importante es tomar cuanto antes las medidas necesarias para intentar salvar al enfermo. No se le debe dejar morir, al menos sin esa elemental asistencia que la Academia de la Lengua Vasca reclama ahora del Poder público.

Morir sistemáticamente privado de alimentación o de asistencia médica no es ya morir de «muerte natural».

Esta clase de muertos merece otro calificativo menos eufemístico que no deseamos que nuestra posteridad pueda jamás ver aplicado a este lengua tan entrañablemente querida por muchos de nosotros.

(Donosti'ko «Diario Vasco» egunerokotik artua).

CARLOS SANTAMARIA

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA



ELIZAREN
ITZA

BATIKANOKO II ELIZ BATZAR NAGUSIAREN ONDORENAK

GAURKO EGUNeko IDAZLARIEN JOKERAK (JARRAIPENA)

Irugarren saill bat aztertu bear dugu oraindik. Ez gindezke gelditu berak esaten eta egiten duenarekin logika barrutian, barenago, sakonago ikusi bear dugu beren barne muñetan gertatzen dakiotena, zer diran eta zer egiten duten, berak oartu gabe geienetan.

Pilatok Jesusi egindako galdera: ¿Egia zer da?; gaurko eguneko sasi jakintsuak, askok beintzat, egiten dute, ta egi billa gau ta egun or dabiliz; baño Egi-egiari begiak itxitzen dizkiote, gaurko eguneko gizonaren aurrepenakin ezin josi ditezkelako diote, baño ez daude aixa jokera orrekin, ezin egona eta naigabe-arra zulatzen ari dakiote, illun eta goibel, bizimoduz nazkatu eta asperturik, gazte zaaturik, ilusiorik gabe. Baño gaurko eguneko modernismoa seta gaiztokoa da; berez, ezezkoa esanagatik, kristau fedea abarrikatzera doa, alegiñak egiten ditu fedearen mami gutzia ustuzten. Au ola izanik ere sistema ortan sarturik dauden frankok, fedeari eusteagatik atzaparrak urratzen dituzte eta beren ustez egizko kristautzat dauzkate beren buruak.

Etzagun aztu filosofi gezurti baten saretan nasirik daudela, okendako, gure buruaz arat (realidad extra-mental) dauden guzik, gure buruaren asmaketak dira, gure espirituari aienaturik daude diren guzi-guzik, subjektibismo gorria. Jaungoikoa gauz guzien gañetik (transcendente) dagola, itxurik eta sentidorik ez dun gauza da, gizonak bildurraren-bildurrez ez jakiñean asmatutako mito bat, gauz guztin gañetik bizi dan Jaungoiko ori. Tankera ontako filosofian, nolaz eraikei kristau fedea? Olako filosofi bati lotu eta kristau fedea daukala dionak, txoro garbia izan bear du. Jaungoikoak deus ezetik sortutako gauz guztik beren izaera dauka, ez asmatu eta emana, berengan (in se) bizi dira eta guzien gañetik berez eta beragin (in se et a se) bizi dan Egille bakarra da, ezerekin eta inorekin nasi gabea, gu denok berriz Arengan bizi, igi (muitu) eta izan gera (Act, 17, 28). Au ola aitortzen ez dunak, uzten aal dio kristau izenari.



ESKUALERRIKO LEIOA

BERSOLARIAK KANBON'N

Azken Abenduaren irugarrenean Kanbo'ko errian (Frantzi aldeko Euskalerriko Lapurdi lurraldeko erri famatu) Bertsolari besta ospatu zan guziz aipagarria.

Saio batean adiñeko bertsolariak aritu ziran: Lau nafartar, eta lapurditar bat, denetara bost. Nafarra zaharrean sortu direnen artean iru mugaz beste aldeko Nafarroan ziren, Xalbador, Larre eta Ezponda, eta bat Nafar Garaian sortua: Simun Ibarra (Zubikoa) deitzen dena. Bostgarren bertsolaria Mattin Treku trebe eta aipatua.

Beste saio batean iru bertsolari gazte ari izandu ziran, iruek nafartarrak, ete iru oken artean Xalbador bertsolariaren semea: Michel Xalbador. Beste biak, Arrosagaray eta Irigarai Aintzil eta Arrosa'ko errian jaiok. Iru bertsolari gazteak ongi egondu ziren bertsokak eratzten.

Eguraldi otza zegon eta au izanagatik ere gende poliki bildu zen.

ANDIMA IBINAGABEITIA BENEZUELA'n ILLA

Bizkaian dagon Elantxobe'ko errian jaiok zen. Gure denboretako euskal idazlari onenetakoa izan da. Bere eriotzaren berriak euskera maite dugunok moteldu gaitu, eta negar eginerazi. Ainbeste zor dio Euskerak Bizkaia'ko seme on zenari...!! Caracas'en il da, Españaiko azken anaiarteko gerratetik bizitzen zen lekuan il zaigu.

Andima zenaren illetak Lazkao'ko beneditarren Elizan ospatu ziren Abenduaren 17 egunean, eta baita ere Donostiko Jesuitenenean il berberaren 8'egunean goizeko amart'erditan.

GOYAN BEGO Bizkaiko seme jatorra, euskaldun, euskaltzale eta euskal idazlaria.

JUAN INAZIO IZTUETA ZANARI OMENALDIA

Berreun urte bete izan dira igaz Juan Inazio Iztueta dantzari, istori-egille eta bertsolari famatu zena Gipuzkoa'ko Zaldibia'ko errian jaiok zela. Beraren omenez zaldibitarrek, yoan berri den Xabierre'ko Frantzisko Sainduaren egunean, Omenaldi aundi eta eder bat antolatatu zuten.

Lengo astean, eta Iztueta aundia euskal idazlari, bertsolari, istoriegitte folklorelari eta dantzari izanik, zaldibitarrek Euskalerriri doakon denetatik «zerbait» eratu zuten: Bi euskal teatro saio, pintura eta eskultura erakusketak, lau itzaldi, txalaparta saio bat, dantzariak eta txistulariak euskal diskoen erakusketa bat, eta «Ez dok mairu» deitzen den kantari talde aipatuaren saioa. Aste ikusgarria benetan Azaroaren 26 egunetik Abenduaren 3 egunera. Ori eta geiago merezi izan zuen Juan Inazio Iztueta Exheberria eta bere erriak gauzak ongi egiten eta berari zegozkion eskerrak ematen agertu ditu.

ARABA'ko DIPUTAZIO FORALA EUSKERAREN ALDE

Araba'ko Diputazioak euskaren aldeko alegiñak egiten asi erabaki du. Alde batetik euskal agiri, liburu, kantzak, toki-izen eta, eta, artetzea. Beste aldetik euskerari dagokion indarra emateko eta ahal bada Araba guzian zabaltzeko. Onetarako Bitorian eta baita ere Araba'ko errietan Euskal Eskolak edo Ikastolak irrikiko ditu.

Zorionak gure anai maite den Araba'ko Diputazion Foralari.

DONOSTI'ko «PEÑAFLORIDA» INSTITUTOAN EUSKAL IKASTAROA

«Peñaflorida» Ikastetxe edo Institutoan euskera erakusten da. Berri onuragarri onek alegatzen dizkigu biotza eta anima. 160 ikasle euskera ikasten asiak dira. Astean iru aldiz izaten dira Euskal Ikastaro, edo Kurso au. Euskal Akademiak (Euskaltzaindiak) au ikusirik Azaroaren 24 eguneko Eiltzarrean karta bat idaztea erabaki du bere poza agertuaz eta laguntza eskeiñiaz.

Suezia'tik etorria

Nils M. Holmer, Suezia'ko jakintsu aundia, gure artean ibili da. Nafarro'ko Ikastetxe Nagusiak (Unibersidadeak) deiturik, eskuara eta bere kideko izkuntza zaharrak duten antza adierazi digu. Suezia'tik asi ta etorria gure gauzetaz mintzatzera!

Aspaldi ba ginuen Holmer jaunaren berri. Bere eskualtzaletasuna ezagutua da baztarretan. Liburu bat ba du eskuaraz eta erderaz idatzia, «El Idioma Vasco Hablado». Erriz erri bildutako ipui eta oiturak ekartzen ditu; baño, belarriz artzen zuen itzen indarra adieraziz. Eta arrigarrina: liburu au Suezia'ko erregearen diru laguntzarekin argitaratu zuen. Nun gaude gu?

Eskuarak ez duela ezertako balio esaten duten askok entzun behar zituzten aren itzak. Bigarren itzaldian zion bezela: «nik ez dut esan nahi eskuara jakin gabe ezin dela izkuntzalari ona (lingüista) izan; baño, orai ikusiko duzue eskuarak zenbat balio duen gure lanerako!». Eta auskolo nungo izkuntzak aipatu ondoan, aiekin zer ikusi aundia zuten euskeratik ateratzen zituen joskerak. Dakienak daki.

Egun aietako paperak esan zutenarekin askok uste izan dute etzakiela eskuararik. Etzuen mintzatzeko erretasunik; baño, jakin!!! Ona zer idatzi zidan neri, duela iru bat urte. Australian sei ilabetez egona zela esan, eta ango berri eman ondoan: «bildur naiz, euskeraz ia-ia aztu egin dudalako; baño gogoratuko zait berriz. Gainera euskera ikasi nai duen ikasle mordoska txiki bat daukat emengo unibersidadean, azkeneko aldian —orain dira urte batzuk— baino geiago». Suezia'ko Unibersidadean euskera ikasi nahi duten gazteak!

Nere etxean egon da eta luzaz eskuara gaiak ikutu ditugu; ni ez



naiz trebe aren sakontasunarekin eskuara gauzetan sartzeko. Eskualdun jayo eta eskualdun azia naizelarik! Nork esan du etzakiela eskuararik?

Udan etorriko omen da. Eguberri-tako ogeitalau orduko gaua ikusi nahi zuen Suezian. Argitzen ez duen eguna. Gero, San Juanetako iluntzen ez duen eguna ikusi ondoan, emen izango dugu berriz, gure artean.

Iluntzen ez duen egun luze ori eskuararendako ekartzen ahal baligu adiskide on Holmer jaunak! Etxakiena, ikusten ez duena bezala da. Eta Eskualerriak duen itzal aundiena ez jakitearen gaua! Ongi etorriak jaun jakintsuak gure begien idekitzera.

SAGI

Bertsolariak Elizondo'n

Datorren Ilbeltzaren 28 egunean, Yainkoa lagun, Elizondo'ko «Antxitoneko trinketean» eta aintzineko iru urte oketan bezala, BERTSOLARI BESTA eder bat egin beharra da. Besta ontan ariko dire:

UZTAPIDE, LASARTE, LOPATEGUI ta LAZKAO-TXIKI.

Baztandarrak ¡Euskaldunak! Etorri Elizondo'ra.

ZANGOTZA'KO II'gn LILI XOKUAK



(Erronkari'ko euskeraz idatzia)

Zangotza'n izan tugu Bigarren Lili-Xokuak eta lein aldiz uskara xin da xokuetara. Amasei uskal kanta eta korientako zortzi Erronkari'ko uskaraz.

Kuek dira sariak irabazi diteinak: Erronkari'ko Iba-xaren saria iror mila pesetako: BERNARDO ESTORNES LASA. Euskal-Yakite'ren Akademiarena iror mila pesetako saria: FERNANDO ARTOLA SAGARZAZU (BORDARI), leina eta AMBROSIO ZATARAIN lein akzesit; bigarren akzesit AGUSTIN ZUBIKARAI jeinari.

Kau gaiza eder eta zoragarri! Erronkari'ko azken uskaldunek xoatran dra mundu kontatik bestera ta zekin eramaitan dei uskara. Sekulako? Eztakir. Ñork ez daki. Uskara iltan dago ibaxa kortan eta tenpra berian uskaldun-berri banek bertso eder egitan daure. Onki urdu zitazu baia obroago egin bar da kango uskara karen leian izari nai badugu. Erronkari'ko irietatik uskara xoan zaiku.

Bitartian begira tzatzei «Erronkari'ko Iror Gizon»-en bizpor zati. Egilea, izabar, Estornes Lasa, Bernardo.

JULIAN KANTARI

Ai laborari, ene Mariano ona, entzun zore seme bozkaria kantatan denian, bere olaren barnian, banaku, edo lasterkan, errepatan bikala. Egun, bartzan, atxurka, biar eregoztra doa: baia erne egon, ezteizun ies egin Ezka egutx edo bidezkotik Erronkari'tik kanpora. Kanta eta kanta zazu libre zrela, ogia irabaztan bitzu eta artzai bizkor bikala Bardeara xaxtan bizra.

Txintxerkoen dulunduna aizetan [dabila: bidean ekustan ztei orok, urrineria orai zoatza, ta beste, anitx berririk sentitan [zra.

¡Kau negu luze ta gogor! baia, gaitzoago, maizterra! (130 bertso obroago du)

(Hay, labrador, mi buen Mariano, escucha a tu hijo cantar, encerrado en su cabaña o correteando de zagal. Hoy cava la huerta, mañana se va a segar, pero cuida, no se te vaya por el Ezka o por la senda fuera de su Roncal. Canta, canta que eres libre, que ya te ganas tu pan y como pastor bajas a la Bardena Real. El sonar de los cencerros el aire llena: todos te ven pasar. Lejos vas y otro, muy nuevo, te sientes ya ¡Qué invierno más largo y duro! ¡Peor aún el caporal! (Tiene 130 versos más)

XIPIAN MIXIOLARIA

Gore Xipian, ene eronkaliar ona, guzi moitetarzun, min ta egin bear [zra baia ¿zer egin? ken atzetik zoaz [zu. ¡Kinbeste arrietan topatan dei zo- [re oinak! Bide gogor dela ekus dokezu eta txutik zaude, kirromarroka.

Lerrak, finki, eblitan, bere kukula, talangaka, ikaraka, ta ¡tente! zore ekusketa kau, bei gaiza zaila; motz zore bizia, ¡egia!: xakin nien: oixan andia zore bartza zela indiar eta lurra, zore moite-gei. (Batu ogoitasei bertso obroago)

(Nuestro Cipriano, mi roncalés, todo amor, todo; dolor, deber, tras ellos vas pues, pero ¡qué hacer? en tantas piedra topan tus pies! y a duras penas estás de pie: ruta difícil, lo puedes ver. El pino, oscila, leve, su fiel; te tambaleas, tiembles, y ¡en pie!, caso difícil, éste tu ver, breve tu vida: ya me enteré. La selva virgen fue tu vergel, e indios y tierra, tu gran querer. (Tiene 26 versos más)

PETRI KAPITAN

Mustazai, erronkaliar zarra, zore seme beigra, gatxitan, zore Garde'ko izkindegian arridoi baten altean, mendien terraskak atxurka azikatako; ardiak, uzkatan, alegunetan baia, beigra, ezteizun ies egin Erronkaritik kanpora Napoles uri italiar andian katedral erdietan, arri-zurizko ederren urrez bere izen izaririk altare nausi ullan: kor datza orzitruk ohoreki Petri injenierua, Olibeto'ko Kuntia, Pedro Nabarro kapitan andia Erronkari'ko mustazaia. (Batu 110 bertso obroago)

(Hatajero, viejo erronkaliar, mira a tu hijo rabiar. Encerrado en su Garde junto al pedregal las costarettas cava para sembrar; las ovejas, cría, en el yerbal, pero, mira, no se te escape de tu Roncal. En la gran ciudad de Nápoles, en la Catedral, en hermoso sepulcro de mármol es-

(Hemos tenido en Sangüesa los Segundos Juegos Florales y por primera vez ha venido el vascuence a los juegos. Dieciséis poesías vascas y de ellas ocho en roncalés. Han ganado los premios así: Premio del Valle del Roncal, de tres mil pesetas: BERNARDO ESTORNES LASA. Premio de la Academia Vasca, de tres mil pesetas, FERNANDO ARTOLA SAGARZAZU (Bordari). Primer accésit: AMBROSIO ZATARAIN y segundo accésit: AGUSTIN ZUBICARAY. ¡Cosa sorprendente y entrañable! Se van los últimos euskaldunas llevándose el idioma al otro mundo. Se está muriendo el uskara, la lengua de los navarros, y al mismo tiempo unos nuevos euskaldunes componen hermosos versos. Esto está muy bien pero hace falta mucho más para poner nuestro idioma en el lugar que le corresponde si no queremos que muera. Se ha ido el vascuence de los pueblos del Valle del Roncal. Veamos ahora algunos fragmentos de tres hombres del Roncal cuyo autor es Bernardo Estornés Lasa).

culpido en oro su nombre está: allí yace, enterrado, y con honor, junto al altar mayor Petri el Ingeniero, Conde Oliveto, Gran Capitán, hatajero de Roncal]. (Tiene 110 versos más)

AZKENEAN IRORAK BAT EGITAN:

Julian kantaria izan nai noke zori Erronkari kantatako eta besten bigotzeta ermaidako. Petri kapitan andia izan nai noke kola irabazteko libertade forala zoretako eta beste uskalduneki guziak-bat [egitako.

Xipian mixiolaria izan nai noke sutsu ta gartsu moite xakitako eta baten ona, besteen ona dela [xakiarzotako

(Quisiera ser Julián el Cantor para cantarte a ti, Erronkari y llevarte al corazón de los demás. Quisiera ser Petri el Gran Capitán para conseguirte, para ti, la Libertad Foral y con los demás vascos hacer de todos un haz. Quisiera ser Cipriano el Misionero para aprender a amar, con ardor y con pasión y hacer comprender al mundo que tu bien, tu libertad es del bien general).

Erronkari'ko uskarak eztu nai il. Lagundu bar digu libururik egitan, ikasgurik izartan eta Erronkariko gentearen biotzean uskarari moitezuna sartan.

(El euskera roncalés no quiere morir. Debemos ayudarlo haciendo libros, poniendo escuelas e introduciendo el amor a la lengua de los navarros en el corazón de la gente roncalesa).

JOSE ESTORNES LASA

Se autoriza la copia para la investigación. © GOBIERNO DE NAVARRA

Argitaratzen dugu Zangotza'ko Bigarren Lore Yokuen «Euskal Yakite» Akademiaren Lenengo Saria irabazi zuen Euskal Poematen zati bat. Euskal Poema onek zazpi saill edo kantak ditu. Ona emen orietarik bi.

Zutinik Naparroa

Kanta bearrak mugitzen dit asmoa
Izan ere ain dut minbera gogoia
Ain ugaria olermen jarioa
Zergatik ixil nere biotzñoa!

Kanta bear onek ar beza bidea
Naparra ernatzea da nere xedea.

ORI'ko TXORIA (BORDARI)

«Hemen naça orçiric, noyzbait gozo ericirik,
Erioac hustegabe dolorosqui egociriqu...».

J. de Amendux 1564

Surrexit

Jeiki, jeiki Naparroa
Iratzar lo-zorrofik
Azi-ona ernatu da
Xuspertu da errotik
Zure izkuntzak bizi nai du
Ez kanta iñork illetik!

Zu zerade Naparroa
Alabetan zaarrena
Zure soin apaindura
Urrezkoa da dena
Maastoi ta garri naroki ta
Zeru urdin gardena.

Eta orain, gogo-biziz
Galdutako izkuntza
Berriz bildu nai dezu ta
Zatozte, ots! onuntza
Deadarka asi zera
Nork ukatu laguntza.

Naparroan, euskal mugan
Zutiñikan Zangotza

Izanaren izen onak
Bertan dauka egoitza
Oñorde-zorrek bultz eginda
Entzun bere abotsa.

«Augi unat, xin zintzoki
Zatoz olerkaria»
Kanta zazu indar guziz
Zangotzan naikaria
Emen euskera izan daila
leen bezin ugaria.

Jeiki, jeiki, Naparroa
Iratzar lo-zorrofik
Azi ona ernatu da
Xuspertu da errotik
Zure izkuntzak bizi nai du
Ez kanta iñork illetik!

Ondarrabi'ko semea den Fernando
Artola Sagarzazu "BORDARI" k idatzia.

¡JUN DA URTIA!

¿Zer on dan frutu irauzi dezu itzali zaitzun urtian? ¿Urte bat geigo idorra ta utsa, kezkarri bizkarrian? Jar zazu ispilluan zure bizitza, ta ikusi begi aurrian, ereiñ al dezun jo zu, gizona, azi on ona lurrian!

Ez dago ontasun irauñor danik urte asko bizitzian. Arkitu leike aiona zarra azkena datorrenian esku uts utsik estu ta larri zer egiñ dun galdetzian. ¡Jarriko balitz Jaunen errukiz orduntxe zeru bidian!

Ereiñ bezela neurri berdiñian jasotzen dira emaitzak. Aizek zabaltzen ibilli danak, bilduko ditu ekaitzak. Udarán lotan egon danentzat neguak dauzka izotzak. Ereiñ deguna ta ez besterik

Bizitza bota ariñ ta lasai geroko kezkarrik gabe, Aita gure bat... Ave Mari bat... ¡jetziñan otoitza zale! Aberastasunez, galduror gauzez beti egarri ta gose. Egun artako, ta erantzuteko, larru bizirik zaude.

Ereiñ badezu azi on dana izerdi pats ta nekian; jardun bazera ereiten beti latztasun ta negarrian, uda ondoren bildu ordua urtero etortzen danian, bilduko dezu neurrik gabe poza zure biotzian.

Lan egiteko asmo sendo bat egiñ biarrian gaude. Guri begira deadarka orobat ainbeste obra badaude. Ez aztu, anaia, ta eman esku, ez egiñ, ez, arren, alde. Ez badiozu erantzuten zuk... ortik dator ainbat kalte.

J. ALDABE

A. Apat Echebarne'i ¡KU KU!

Nunbait leitu nun, gure Xabierko Franzisko Santuak, eriotzeraño gaizki zeola, munduz mundu ibillita ikasitako izkera guzik alde batea utzita, euskeraz —gastaroen bezala— eiten zituela bee orazioak.

Nik-ee, gaur biñepin, oñetako estuk gustao kentzen deen bezala, aldendu beaot liburutako euskera, naiz nerea baño politegoa izan.

Gaur, dena, Goldarazko euskeraz ein beaot.

Ditezela baztarrea, gramatika ta dizionario guzik.

Gaur, nee athe, Andres Astiz —«GOLDARAZKO BERSOLARIA»k—, ta nee ama, Joshepa Arregi'k erakutsi zeeten euskeaz ein beaot. ¿Zeengati? Bela esangoet...

Urtero, udaberria datorrenin, asten da kuku kantari. Aurten, abendu otza delarik, kantatu do «PRINCIPE DE VIANA»tik, «A. Apat Echebarne» izen ordekoaren atzetik.

¿Noi ein dio ¡kuku! Nei, «IKASI-MIKASI»n asmazalle naizenai.

Zu, Echebarne jauna, «MATER ET MAGISTRA», «PACEN IM TERRIS», «Vatikano'ko Documents catholiques internationales» eta beste ainbeste paperetan leunkerik ikasten ai zeon orrek, ¡infernuko erlaztiñen zaktakoa eman deezu!

¿Ez duzu beñee aithu Jesukristoen mandatu au: ZURE ANAIK ZERBAIT EGIN BADO ZURE KONTRA, EDO PEKATUN BATEN ERORI BADA, ZOAZ BERARENGANA ETA ESAIOZU, BIEK BAKARRIK ZAUDETELA?... (S. Mateo, 18, 15).

Zu ta bieki, «PRINCIPE DE VIANA»n langille bai gea, ¿etziñakin non neon?

¿Zergat ez deezu itz bat'e esan, olako zalaparta atea baño len? Gauzeat, bakarrik, ekusten da zure idazkai ozpiñezko ortan: ni enaizela ZURE SANTO DEBOTOA. Beste arrazoik ez dezula, oantxe ikusikoezu.

• Zuk diozunez, neetzat «IKASI-MIKASI»n leizale guzik kaikuk dee...

Nik ez det kaikuai bezala eskribitzen, baizik, errespeto aundiaz; argi eta garbi, denak aithu dezaten modun, gertaketa eta ejenploakin. Baitaree, badakit, zuk bezin ongi, noañokoa den gure mutillen eta gizonen erlijio ikaskintza. Geinak Konzilioko gauzetaz eta enteratuik badaude, banaka batzuk badee Kredo osoa ez dakitenak...

• Nik «MUNDU ONTAN, BAI, POBREA BETI ABERATSEN AZPIN EONDU TA EONEN DIRE»la jarri dutelako, geiegiko izukerik eiten dituzu. —«Orduan, MATER ET MAGISTRA eta PACEN IM TERRIS, ¿non uzten dituzu?»— diozu.

Zurekin eta Eliz Ama Santarekin nago, mundu ontan daon ainbesteko desberdintasuna kendu nai. Askio ein da urte auetan ta geigoree eifien da borontate oneko gizon guzik saiatzen bagea, baño, ¿denak berdiñek jarri arte? ¿Usteozu artzai gizajoatek, ministro baten bizimodu ta influenzi izango dula noizbait? Torero, kantante, pintore ta beste asko badee, orduñin bakarrik, langilleatek ille osoan irabazten ez duena jasotzen dutenak...

Aithe Santun enziklika guzikin, baita komunismo rusokin'ee, izango dee goizeko seietan jeki bearko dutenak eta amarretan, eo amabitan, jekiko deenak.

¿Negargarri? Niree ortan nao, baño ola izanda beti, ta gutxi gora bera, ola gertatuko da, itsuk eta erbarrik eta tontoak deen eskeo. Gañea, ¿kenduko dee mundu ontatik ainbeste lapur eta tranposo?

• Zuk diozunez, ni enaiz «Vatikanon egungo irakaspen erara», infernutaz eta eskribitzen bai dot... ¿Non ikusi duzu zuk Vatikanoko Konzilioan Eskritura Santuen itz bat ere kendu dutenik? Guregana urbilleraiz nai ditiogunai, eo guregandit eskapaka bezala dabiltenai, leunkeriz eta amodioz itz ein bear zaiela, ¡konforme! Baño, Naparroako gizon eta mutillei, ebanjelioak diaguna izkutatu bear diegula? ¡ENAO KONFORME! Bestela, bota ditzagun sura Liburu Santu guzik, eta jakao!

¡EGI OSOA NAI DUTE GURE ERRIETAKO KRISTAU ZINTZOAK!

Gaurko, naiko da.

Urrengoan, zerbait esan nai badeezu, esan arpegira, ebanjelioak agintzen diun bezala. ¡Izkututik, izen-ordekoakin arpegia estalita, ez da gizonena ta, gutxiago, kristauena!

A. ASTIZ ARREGI



Aita Andrés Astiz Arregi, Pasionista, «GOLDARAZKO BERSOLARIA»n seme ta IKASI-MIKASI'n asmazalle dena. Agur xamur bat Aita Andrés eta eskerrik asko bedorren laguntzaren-gatik.

IKASI, MIKASI...



Sakristau zar baten kezka

Lengoa etorri zen nigana aspaldian ezagutzen nuen sakristau zar bat.

—Beorrek oi dun bezala, esan zidan, jarri dezake «IKASI, MIKASI»n gure elkar izketa, baño, mesedez, ez beza jarri nor da nongoa naizen...

—¡Ain erri politekoa, ta ain gizon zintzo zeran ezker...!

—¿Badaki zeengatik den? Sakristau naiz berrogeita amar urte auetan. Mutiko nitzela, zazpi urtetatik asita, meza laguntzen nun. Geo. nee athe itzen eskeo, dena nee kontuz. Argezkille eo illunezkille jo bear dela, meza eo arrosarioa dela; bataioa eo eortzeta dela, Pesta Berri eo Aste Santu dela, dena nee kontuz...

—¿Ta?

—Alaree —¡lotsa ematen dit esatea!—, bein baño geiagotan, etortzen zait nee burura: «¿Egi ote da Jesukristo sagraioan daola? ¿Egi ote da Jesukristo Jainko dela?»

—¡Gizona! Zuri gertatzen zaizuna, gertatu dezaioko edoziñeri. Baita zure apez jaunari, obispo jaunari eta Aite Santuari ere. Begira ze dion San Paulo, Apostoluak: «JAINKOA (gorputzeko begiekin) EZ DO INOK BEIN ERE IKUSI».

Siñismen oitaz siñistatzen degu, fedeak —Jainkoak— ala erakutsi digulako, ez guk ikusten degulako. Gauze oitaz, noiz edo noiz, kezkan egotea, ez da siñisgogor izatea. Zuri burura etortzen zaizuna, fedeen kontrako tentazio bat besterik ez da.

—Ziñez, ¿Jesukristo gizon baño geiago zen?

—¡JAINKOA TA GIZON EGIAZKOA!

—Oi ala izan eskeo, beste siñeskai guzik errexak dee siñestatzeko.

—Jesukristo gizon baño geiago dela, gauza agirikoa da. Ia bi mille urte ba dire Belen'go Estalpean jaio zela, eta bi mille urte auetan ez da izan gizon famatuikorik. Beste gizon asko jaio dire bi mille urte auetan. Batzuek naiko soñu atera zuten bolada batez, baño, urte asko igaro gabe, ixil ixillik daude. «JESUKRISTO, ATZO ETA GAUR ETA SEKULEN»... (Ebreoai, 13-8)

Banaka batzuek bakarrik aipatzeko: Neron, Diokleziano, Napoleon, Bismark, Hitler, Musolini... ¿nor gogoratzen da aitzaz? Jesukristo'gaz, mille liburu baño geiago idazten dira urtero, ta Bere jarraitzaile geranak bederatzieun milioitiko gora gera.

—Egia da beorrek diona. Dudaik'pai, Jesukristo izandu da gizon famatuena. Baño, Jainko dela, ¿nola jakien dugu?

—Berak diagu, eta Berak egindako mirariak egiztazten digute.

—¿Noizpait esan zun Beak, argi eta garbi, Jainkoa zela?

—Milla bider esan zuen Jainkoa zela, eta ainbeste mirari egin bai zituen, Jainkoa zela erakusteko egin zituen.

—¿Kaso batzuk besteik ez bada, aipatu benezazke?

—Ara emen Itun Berriko zatitxo batzuek:

—«Aingeruak au esan zion: sabelean aurra erneko

duzu ta erdiko, ta izena JESUS emango diozu. Espiritu Santua goitik jexkiko da zugana, ta santuki sortu ori JAINKOAREN SEME deritzake». (Lukas, 1, 26-38).

—«Beñiola, Jesusek ikasleeri au esan zion: Jainkoa siñesten duzute, siñes nazazute Ni ere... —Ni ekusten naunak, Aita ere ikusten du. ¿Ez al duzute siñesten Ni Aitagau eta Aita Nigan dagoala? Itzegin dizuadana, ez dizuet Nerez itzegin. Nigan dagon Aita, ua ari da Nigan. Bestela, Nik egiñeri siñetsi. Egi egiz esan, Ni siñesten naunak, Nik egiñak eta aundiagoak ere egingo ditu, Aitagana bai noa. Ta zuek Aitari nere izenean zer eska, emango dizuet». (Juan, 14, 1-13).

—Kaifas, Apaiz Buruak, galdetu zion: «¿Kristoa Zu al zera, Jainko onetsiaren Semea? Bai, esan zion Jesusek, NI NAIZ, eta Gizaseme au ikusiko duzute Jainko altsuaren eskuiñ aldean eserita, odeietan barna etortzen». (Markos, 15, 1-46).

—Lazaro berpiztu baño lenago, Jesusek orazio au egin zuen: «Esker on Aita, entzun nauzulako, banan inguruan daudenongatik esaten dizut, ZUK BIALDUA nauzula siñes dezaten». (Juan, 11, 1-45).

—Aitzen ziotenak, ¿siñesten zuten Jesukristo Jainko zela?

—Arrokeriz beteta zeudenak, ez. Borondate oneko gizonak, bai.

Ara, emen, zer zion Nikodemus, legarkide jakintsu arrek:

—«Guk igarritzen degu, iñok etzezakela egin Zuk egiten dituzun mirariak, JAINKOA ez izan ezker». (Juan 3, 2-14).

—«Beñiola, ikasleak bildurik zeudela, ta juduen bildurrez atek itxirik zeuzkatela, Jesus etorrita erdian agertu zen. Baño Tomas etzegen aiekien Jesus etorri zanean. Jauna ikusi dogu, esan zioten. Baño arrek esan zion: Itzte-kuntzeak Aren eskuetan ikusten ez ba' ditut neronek, ez dut siñetsiko. Andik zortzi egunera, ikasleek berriro barnean zeuden, ta aiekien Tomas ere. Jesus etorrita erdian jarri zitzairen, esanez: **Pakea zueri**. Gero diotsa Tomasi: Ekatzu onera beatz ori, ta sar nere saietsean, siñesgogor ez baña zaite siñestun. ¡NERE JAUN ETA JAUNGOIKOIA!, erantzun zion Tomasek. Iku si nauzulako siñestu duzu, esan zion Jesusek; bai doatsu, ikusi gabe siñesten dutenak. (Juan, 20, 19-31).

—Beorrenzat, ¿zein da Jesukristo Jainko dela siñesteko agerpede oheena?

—Bere Jaungoikotasunaren agerbiderik aundiena eta guretzat itxaropide pozgarriena da Jesukristoren pitzea, gure piztu bearrari asiera emanez. Orrengatik Erresurrezioko Pazkoa da ja guzien jaia, gure erlijio egi guzien korapilloa, gertaera guzien giltza...

—Mille esker, jauna. Makiñabat itzaldi aditu ditut oñarte, baño beorrek bota deen argiagorik, ez.

—Ia, bada, botatzen dituzun alde batera orain arteko kezka oiek. ¡Eta erri guztiak ikusi dezala zure fedearren sendotasuna!

A. ASTIZ ARREGI

«Xalbador» bertsolariari omenaldia

Goan den Abenduaren 10'ean Zumarraga'ko errian gure Xalbador

bertsolariari merexi zuen omenaldia egin zioten. Egun ortan aro txarra ginuen eta beldurtzeko zen elurak uzkuriturik asko bertsozale ez auzartzea Zumarraga'raño. Egia erran yende biziki geiago erakarriko zaukun eguraldi eder batek, bainan neugau de eta ezta arritzekoa aro txarra gertatzea. Elurak yendea etzuen izitu eta an ikusi gintuen ainbertze ta ainbertze bertsozale gure Xalbador'i ohore egiten ziotela. Besta guzik ederra izandu zen, gure anai gipuzkoarrak beren aurride Xalbador'i egin dioten omena guzien gañekoa izan da.

Goizean eskuarazko Meza, Aita Agustin Orbegozo meza emale ta izlari euskera garbi ta apañez mintzatu zelarik, dena bertso ta olerki. Mezaren eskeintza Azpillaga ta Basarri'k egin zuten bertsoetan kantatuz, eta mezako abestiak edo kantak erri guziak txistu soñuarekin lagundurik. Meza zoragarria eta eliza bete bete yendez. Eskuarazko meza ok euskalzaleentzat hungigarriak izaten dire, izan ere meza auek badute doai berexi bat, ain dira maitagarriak... Gure lagun Basarri opeitsuak «ZERUKO ARGIA»n Xalbador'en omena aipatzen du eta orra meza ortaz zer dion:

«Aita Agustin Orbegozo meza emale ta izlari, euskera soñekorik apañenez jantzia agertu zan. Nola ez Aita Orbegozo'ren ezpañetan. Euskal Mezak badute guretzat beste mezak ezuten zerbait. Gaztelaraz esaten diranak berdin konprenditzen ditugu, baña barrena ezgite berdin ikutzen. Amaren altzoan ikasitako ikuntzak ba-du geroztik ikasi gendun izkuntza arrotzak ez tun zerbait. Berezia da, apartekoa da, geurea da. Onekin dana esana dago noski. Aita Orbegozo'ren itzaldia ezti-jario utsa izan zan, asi ta buka. Dana bertso, dana goi mallako poesi».

Egi garbia bai Basarri yaunak erraten duena. Gure eskualdean noiz ikusiko ote ditugu orrelako meza ederrak?


Meza ondoan «Itzalon» deitutako salan izan ginuen Xalbador'en Omena ta bertso saioa. Bereartan aritu ziren, Uztapide, Lasarte, Lopategi, Lazkao-Txiki, Mattin ta Xalbador, sei bertsolari eta nolakoak gañera. Bertso saioa asi aintzinean Basarri yaunak omenaldiari buruz itzaldi hungigarri bat egin zuten, gipuzkoar guzien izenean Xalbador'en nortasuna goretziz eta bere balioa merezi duen negurrian ezarriz. Itzaldi ederra Basarri'rena. Sei bertsolarien kantaldiak goi mallakoak izan ziren, gaik ere egokiak eta yendearen gogokoak baiziren. Luzio Gabiria yauna izan zen gai emale ta zuzendari. Hungigarria ere izan zen Zumarraga'ko euskal ikastolako aurrek Xalbador'i eskeñi zioten edergailua, zazpi urteko neskatiko batek bertso polit bat kantatuz gure urepeldarri oparia emanez. Gero «Urola» jaltetean izan ginuen bazkaria, berreun bazkaltiar baginen baño leku geiago izan balitz bertze ainbertze eta geiago ere izanen ziren. Bazkari ederra bai euskaldun yendeari dagokion negurrian eta umorea ere guzien gañekoa, bertso ta itzaldi ederra bazkalondoan, guttinetik ama-bortz bertsolari kantuz ari zirela Xalbador'i ohore eginez.

Ilunabartu baño len bestari akaballa eman zitzaion denek elkarri azken Agurra eginik.

Zorionak guzien gañetik Xalbador'i eta bai omenaldi orren antolatzaileeri.

Zumarraga'n izandu ginen baztandarrak, geren biotzetan oroitzaipen eder bat ekarri dugu, gipuzkoarrek badakite gauzak ongi egiten!!

M. IZETA



KIROLAK

AIZKOLARIAK

Yoan den Azaroaren 12'an Azpeitiko plazan aizkora apostu bat yokatu zuten. Oraikoa Berekoetxea gorritiarrak eta Arriya azpeitiarra buruz buru ari izanak ditugu bakotxak seina 80 ontzako egur moztu beharrak zituztela (1,85 m. itzul-inguru).

Lendabiziko iru onborrak Arriyak Berekoetxeak baño lasterrago moztu zituen, gorritiarrari aintzinaldia arturik, baño laugarrenean Arriya gaztea gibelean gelditu zen onbor au ezin erdibituz ainbertze denbora pasturik. Berekoetxea gero ta indarstuago zoaen, lanean ere aisa ari zen eta falta zituen bertze bi onborrak neke aundirik gabe mozturrik yokoa aisa irabazi zuten, sei egurrak

45 minutu ta 17 segundoz erdibiturik. Arriyak beharko zituen 51 m ta 14 s. bere sei onborrak ebakitzeko.

Berekoetxea gorritiarrak etzuen bere burua aunitzik bortxatu, apostua aisa irabazi zuten, aizkolari ona da eta ofizioa ere ongi dakiena. Arriya gazteak indarra aundia du baño oraindik aunitz ikasi beharra, gaia badauka bai eta ofizioa ongi ikasten balu beldurgarria izango litzake Trabesak laugarren egurra bizkitartean gora-bera aundiak ibili zituen bainan erran bezala laugarren onborean erabaki zen auzia.

Amabortz egunen buruan bertze apostu bat izan dugu eta berriz ere gipuzkoarra eta naparra zein-geiagoka. Oraingoan Tolosa'ko plazan ari izanak dire, Mariñelarena Donamariarra eta Ezeiza Beizamarra buruz buru. Bakotxak zituen 45 ontzako 14 egur moztu beharrak, bieki batean asita nork lasterrago erdibitu. Gudukaldi polita izan omen zen, bien indarrak berdintsuak eta bieki ahalmen guziak agertu zituztelarik. Mariñelarena naparrak irabazi zuten, gipuzkoarrari 30 segundoen alde atera ziolarik. Irabaztaleak 14 egurrak, 30,55 minutoz moztu zituen eta galtzaleak lan bera 31,25 m. tan. Eguraldi txarra gertatu zen eta plazan yende gutxi omen zen.

ANZANARRI



ERRIZ - ERRI.



DONEZTEBE

DONEZTEBE'KO FERIAK

Azaroako amazpian, ostiralez, antziñatik ta aspalditik ezagutu izan oi diran feri sonatuak, zebratu ziran Doneztebe'ko errian.

Garai batean, toki askotatik, batez ere aldameneko errietatik, biltzen ziran jendeketak, «kondaira edo ix-tori» batean gelditu dira... Gure erri-buruetako feriak ta merkatuak, galdu dituzte izen eder oien antz...k. Deus-gutxi ikusten da gaurko egunetan. Etxetik saltzen dira on diran azindak edo ganaduak.

Agitz azinda gutxi azaldu zan Doneztebe'ko merkatuko plazan. Gora-bera txikia zeukaten sal-erosteak. Lengo gure xaarrek esaten zuten Doneztebe'ko feriak ibiltzen zitezela beste errietako ferien sal-neurriak; au da, Donezteben prezio bixi xamarrek ibiltzen baziran, siñale edo ageri ona beste errietako. Aurtun beintzat, ez «bixi ta ez motel» bearko dute izan. ezer-gutxi bai zegoen...

APAIZ BILLERA

Bertir-Arana ballarako «Bertiz» jauregian, izan dituzte billera ta elkar-izketa batzuek, Baztan ta Bidasoa aldeko apaiz talde batek, «oian-mutillak» ta «hoteletako neskatxak» elburu dituztela.

«Oian-mutillak»gai oni buruz itz egin edo mintzatu zan jatorri Arantzako Erretor dan Irigoien'dar Esteban apaiza. Eta, «hoteletako neskatxak» mintzatu zana, don José Pérez ta Balda. Beran dagoen apaiza. Don Esteban apaizak ongi daki, edo beintzat, bein batzuek geiagotan ikusi du nolako bizimodua, zer irabazpideak ta nolako lantegiak izaten dituzten gure euskal mendi-mutillak.

Elkar-izketa oietan artu dituzten erabakiak, on aundiak ekarriko dizkiela gure mutillei uste osoan gaudete. Eta joka-bide bera gure neskatxentzat.

ERRALDALE EDO «EMIGRANTE» EGUNARI BURUZ

Espani'ko estadistikak garbi diotenez, iru milloi urbil españitar badira Europa zabalean, gizonetako ta emakumezko, lan egiten dutenak. Au, ez al da lotsagarri, orrenbesteko pillak atzerrira, extranjerira ogi billa joan bearra izatea? Zertarako bota etxea leiotik kanpora, esanez: au badegu ta ura ere bai, egon eta ibilli aldameneko naziotarako bideak artzera beartzen bagera, gu ta gure ondokoen «etorkizuna» zuzentzearren ta obetzeagatik?

«Kanpora lan billa joan bearrak, ezbear ta buruaste aundiak sortzen ta ekartzen dizkio gizonari», esaten digu Batikano Bigarrenak, gaurko munduaz itz egiten duenian. Eta, jarraitzen du: «Alegin guztiak egin bear dira lantegiak sortzen norberaren aberrian. Agintariak ta altsuak bearturik daude, bizipide garbi, lasai ta egokiak irixteko era guztietsiko langilleeri».

Negargarria da benetan gure mundu txiki au nola dabillen ta nola arkitzen dan aitortu bearra izatea. Egia, egi da. Eta beti orrela goaz... Noiz arte?

G. TA U. YON



SALDIAS

LATASAREN DESAFIOA

Lataso Aizkolaria bieri jokatzeko prest dago zeñiek len ebaki lau kanako. Ortarako oiek berexen ditu: Egurrak berak eramatea, bestiek baikoitzak bina egur bat bestien atze-

tik ebakitzea, txandatu gabe, erakustunik eta laguntzallerik ez izatea. Ogei milla duro berriz «trabesa».

Ikusten da ez dela edozein Lataso, baño nere ustez, bi, beti bi izaten dira. Ikusi egin bear ia norbaitek zer erantzun dien.

LEITZEKO NEKAZARI
ESKOLERA

Ikasketak sei illabete iraunen ditu. Egunero lau ordu, eskola ikasten aritzen dira, eta beste lau orduz berriz nekazari eta azindan gauzak; igandea pasatzera larunbata atsaldetan etxera etortzen dira mutillak. Orain arte beñepein oso kontent dabiliz emengo joaten diran gazteak. Olaxe jarraitu dezatela, bada; mesederik aundieta beurentzat baita.

ARROBI BERRIA

«Danbolin-borda «gaiñean arrobi bat asi dute, arri-losak ateratzeko asmoetan. Xalbatteko, Danbolin-bordako eta erriko lurretan egiteko dira lendarizko ikusketak. Erriak sei illabeteko baimena eman die proba egiteko.

ERASUN

BERRIZ ERE MUTIL GAZTE
BAT ILLA

Ogeitabat urteko mutill gaztea. Datorren urtean soldadu joan beharra. Berre gaztetasuna lorean daukala it da. Ill onen zazpian, atsaldetako ordu bat erdietatik bi orduk aldera, Leitze aldetik bere autoan zetozela bere eta bere lagun bat orjotzen du Ezkurreko «Ermitt-atze» marruan gora dijoan kamioi bat.

Autoa eta kamioia beren barren-go jendeekin or joaten dira aldapa bera. Autoan, bi lagun ziran, eta kamioian ere beste bi. Irukek alako min aundirik etzuten artu, baño lau-garrena oso desegin zan. Ogei bat minutoz oraindik bizitu omen zan. Oliadura artzeko aña denbora. Il zana Erasungo «Azpikotxeko» bordako Juantxo zan. Ta karidadez otoi-tzetxo bat bere alde.



BAZTAN

BESTAK

Gartzain, Berroeta ta Ituren'go erriek beren bestak egin dituzte eta San Martinekin batean gure errietako besta guziek akitu zaizkigu. Aurtengo San Martinetan beñere ez bezalako eguraldiak izan ditugu, zerue garbi, aize epel ta iguzki dirdirantarekin, ortaz bada aurtengo bestak aintzineko urtekoak baño erriekiste geiago izan dute eta yende aunitz ibilia da. Oiturari yarraikiz erri oietan izan dituzte, Meza Nagusia, pilota partidak, naiko soñu ta dantza eta otordu ederrak.

Sanmartinek pasa ta ondoan eta aste berean denborak aldakuntza izigarria egin zaukun, eurie, elurre ta aski eguraldi latza izan dugulerik. Mendietan eta zenbait errietan ere elurre franko poliki egin dauku baño zorionez bereala kendu zuen eta orai ilabetearen ondarrera denbora politak izan ditugu eta nekazariak arto biltzen ta zenbaitzuk bada ereiten ere ari izanak dire.

BERTSOLARIAK

Baztandar yendeak bertsolariak maite ditu eta oien arteko kantaldi xarmantak gure Baztan alde untan erriekiste aundieta izaten dute. Aurtengo neguan ere Yainkoa lagun eta gan deneko iru negu oietan bezala eldu den Ilbeltza'ren 28'ean ain segur, bertsolari besta eder bat egin gogo dugu. Bertzetan bezala Antxitoneko trinketean eta atsaldetako lau tertulietan izanen da eta or ariko dire *Uztapide, Lasarte, Lazkao-Txiki ta Lopategi*. Lopategi au bizkaitarra da, bertsolari ona eta oberenen parekoa. Donostian egin duten azkenengo Txapelketan, Euskalerri guziko bertsolari oberen artean irugarren Saria erdietsi zuen, or ageri baita orren balioa. Gañera bere bertsuetan gipuzkoar solasa erabiltzen du eta emengoek aisa konprendituko diote.

ANZANARRI



NAPARROKO BIZIA

Euskaltzaindia'ren Batzarra

Egun aundia euskerarendako, abenduaren 20'an Iruñen egina. Aspaldiko partez Euskaltzaindiak (Academia'k) bere billera Naparroko iri buruan egin du. Beste gauza askoren artean, Euskaltzaindiaren urrezko ezteiak direla ta egingo diren urren urteko gora-beraz itzegin zen.

Gure Diputazioko Jauregia dirdiratsu zegoen festa aunditan bezala. Errextasun eta laguntza guziak ukan genituen.

Goizetik, Akademia'ko billera laburra ginuen lehenik; eta gero, gure idazle Enrique Zubiri zenaren omenaldia. Diputazioko lendakari den Huarte jauna mintzatu zitzaigun, esanez: «egunetik egunera gehiago maite dugu Naparroan eskuara. Behar ere! Izkuntza eder ontan mintzo izan da beti gure eskualden. Eskuara zuten gure aurrekoek beren arteko artu-eman, maite-solas eta otoi-tzetan...».

Pozgarri zen bere agotik aitortza onen entzutea:

«Damurik, ez dugu gehiago egin eskuararen alde. Xabier, gure artean izan den gizonik idekienak, eriotzeko orduan bere ezpainenat zuen izkuntza!!».

Baño, billera onek ba zuen beste kirtenik. Gure idazlearen berri ematea, alegia. Oso gutxi ezagutua da Manezaundi Eskualerrian. Bixia zen eta aldakorra, artista ona bezala. Bere lanak, sakonak eta nortasunez jantziak. Bizikiak ozpin gehiago ixuri zion olio baño. Au aditzera eman zuen Satrustegi jaunak.

Irigaray euskaltzainak, idazlearen azterketa egin zuen. Adiskide minak izanak biak, be zekien ongi aren berri. Ipui polit bat eta Manezaundi Luzaiden l. dutako erranak jakinarazi zizkigun.

Azkenean be jenituen barnean festa bera baño sartuago gelditu zitzaizkigun gauzak. Ongi etorri ura, euskerari egindakoa bezala artu ginuen; ez an ginen gizoneri. An esan ziren gauzak biotz onez esanak ziren eta ondoko egunetan ikusiko da zerbait. Aurtengo urte au muga onez sartu delakoan gaude danok.

Eskualtzale asko bildu ginuen; giro jatorra eta Diputazioko atari aundiak idekiak eskuarari. Ia gure erriak beste ainbeste egiten duen. Ez ginuke gehiago negar egiterik.

Oiek guziak argi-ekzilak bezala dira; erriak du esnatu behar. Guk esan dezakegun guzia, Naparroko eskuararen argi-sentia sumatzen dela; eta itxura onean sumatu ere. Lañotzen ez ba da!!

NEKAZARITZA ETA ABEREAK.

ELIZONDO'KO AMABOST ALDIKO MERKATUA. Abenduak 9

BEIAK:

Aitzinerako beiak, 28.000'tik 40.000 pezetara; esneko beiak, 27.000'tik 37.000 pezetara; aragiko beiak, 28'tik 34 pezetara kilo bizik; migak ernariak, 25.000'tik 29.000 pezetara; aratxe gizenak, 56'tik 61 pezetara kilo bizik.

TXERRIAK:

Bi ilabeteko kumeak, 800'tik 950 pezetara baktotxa; bargoak, 1.900'tik 2.600 pezetara baktotxa; txerri-gizenak bertakoak, 34'tik 36'50 pezetara kilo bizik; txerri-gizenak «York» delakoak, 39'tik 40'50 pezetara kilo bizik.

Merkatu txarra ta abereak gutxi. Elurrak etsi ditu bideak, eta ezda aisa ateratzea abereak baso-etxerik merkatu aldera. Salmenta gutxi, aratxeak eskea gutiago ta saria pezeta pare bat beiti. Jendeak uste zuen txerri-humeak sendotuko zuela saria, bañan ez. Tratulariak erosten dituzte geinak Irurtzun'en berriz saltzeko, bañan denborakin izitu dira bideak etsiko zirala, ta eroste gutxi egin dute.

DONEZTEBE'KO AMABOST ALDIKO AZOKA. Abenduak 7

Nola jai eguna zen ostirala 8'an, ostegun 7'an gertatu zen. Merkatukari etorrera nabaria. Ez ainbeste aberena, eta oetik, geiago txerri gizenak.

Sariak goralde antzan bizitzako beietakoetan; goralde ezagugarri'kin txerri gizenetan, eta beralde ariña'kin aragitako beietakoak ta txerrikumeak.

Txerri gizenak 80'tik 110 kilo tartekoak, geienak erosten dituzte gipuzkoar tratulariak, odol edo arraza berezi gabe, ordaintzen dituzte, 38'tik 40 pezetara kilo bizirik. Pisu ori baño aundigoak eta zerrama gizenak, 32'tik 34 pezeta tartean dabilta.

Pisatu ziran 52 saduak; beste batzuek saldu ziran begira eta beste asko itzuliziran bere etxetara, sariak obetuko diran itxaropenakin.

SARIAK: Bizitzako abereak: beiak, esnetan edo ernari, 26'tik 40.000 pezetara; bei gazte edo miga ernariak, 24'tik 30.000'tara eta txerrikumeak, 700'tik 850'tara.

Aragitakoak: beia, 28'tik 32 pezetara kilo bizirik; esnetako txekorrak, 63'tik 68'tara eta aundigoak, 53'tik 58'tara; txerri gizenak 110 kilo arte, 38'tik 40'tara eta aundigoak, 32'tik 34'tara; eznaizko ardiak, 20'tik 22'tara.

LESAKA



«Olentzero» Lesakan

Bertze urte bat gutxiago. Milla bederatzia eun irurogei ta zazpi garren (1967) urtea iltzera dijoa, azkengutan dago. Ta, berriz ere, urte akabillasiera onetan, bestak, EGOBERRIAK.

Anaiak, izaunak, urte guzian elkar ikusi eziñ izandu duten adiskideak, besarkatzeko modua, urte guziko gotxi-betxik ontatzeko modua. Bai. Emen dauzkagu, ba, eguberriak. Sukaldean goxo-goxo egoteko egunak, elurra edo uria lasai ari malimaduz ere, baktotxak bere kontuak erranz, urteko zoritxar ta karrakillak antziz.

Baño, alikan ere, urtean egindago lanak arrotzea piskobat ezdu gaitzerik ekarritzen. Ze lekutan sartu zan «loian»; ze aldetara yokatu bear zuan, berriz etzaziola gauz bera gertatu.

Nolakoa izandu da urtea?: Galdetzen al duzue elkarrerri, baktotxak bere egiñ-bearretan. Nere gauzetik ateri gabe, ala geldetzen dizuet nik: Nolakoa izandu da urte au euskerarentzako?: GAIZKI. Ala diote batzuek, ta... ala diot nik ere. Zergatik?: Gazteak, euskeraz mintzatzea lotsagabekeri bat dela uste dutelako.

Gizonak, erdaraz, trebetu naizik, mintzatzia naigo dutelako. Gauz bat edo bertziangatik, egia au da: Lesakako euskerak galdu egiñ dula urte onetan; ta ez gutxi!! Galdu, bai, euskaldunak bakandu diralako; erdal solas aunitz sartzen dugulako.

Nik, al dutena, uste dut, egiñ dutela. Rebista onen bidez, zuengana alletu nai izandu naiz, Lesakako mintzaera au gorde naizik. Nere eskuetan zagona egiñ dut, boronte osoakin. Gañekoa zuen baitan (zuen eskuetan) jago. Antziñekoak utzi ziguten izkuntza ez balimadegu nai gorde maitasun geiagokin, batzuen lanak alferrikan dira. DENAK, ez batzuek bakarrik, gorde baar dugu euskera; bertzela, beñgotik bakean utzi, ta lissto!!

Bueno, baño, ezdugu asertu bear egun otan, elkartasunen bizitzekoak dire ta!

Akautu nai dut, urtea, danoeri deseittuz, danokeri, berriz ere erraten dizutet, euskaldun edo erdaldun, izaun edo ez, eta batez ere nere leitzalderdiskide oiekeri, EGOBERRI ta URTE BERRI ON!!

(Idazlan au berandu artu bagendun ere Ilbeltzekoan argitaratu dugu, gure ustez merezix duelako).

ANTON

Naparroa Euskaldun

Erri baten izakera, bera izkuntzarenpean, barrenean sartzen zaio. Izkuntzak adierazten du erri orren nortasuna. Guk ere, napartarrok, LINGUA NAVARRORUM ezagutzen degu guretzat. EUSKERA da napartarren izkuntza.

Urte asko dira «atzerakada» aundi bat eman zuela euskerak Naparroan; Erribera aldetik uxatuta bezela, mendi tartean gorde-ta gelditu zan; emen ere, askoren beranganako gorrotoak ta beste askoren ulertu-eziñak edo ententitu-ezñaiak, oinperaturik egon izan oi da; ezertan ere etzaio esku bat eman, zigorrastatzeko ez bada baizik. Bera bakarrik zaitu da. Benetan, il-ekorra izaki...!

Gaur, zorionez, beste moduzko aize batzuek irri-par egiten digute. Euskera zapaldu naiez ta itto bearrez ibiltzen ziran aiek berak garai onean konturatu dira. Garai batean «ze falta egiten du euskerak» esaten zuten aiek, gaur, «euskera nai ta naiez bear degu» esaten ta eskatzen dute. ¿Zergatik? ¿Zer «fenómeno» gertatu da tarte orretan? Erri batek bere IZKUNTZA galtzen badu, dena galdua daukalakotz: oiturak, nortasuna ta abar. Bear bada erri orri geldituko litzaiotzke, ibaia, mendiak, basoak (oianak)... bañan, izkuntza galtzearekin batean, ilko litzaiotzke bere jatorrizko izakera.

Naparroako euekeraganako «berpizte» onek, on aundiak ekarriko dituala, dudarik ez dago. Pixka bat geiago ernatzen bagera, euskal-mende berriak izango du jakintza edo kultura egoki bat; ez-jakin ta analfabetoak gutxituko dira; euskal-erriko NAPARRO aundi au, gertu ta ¡zutik! egongo da gauz guztietarako.

Bañan, au bai! Etxetik asi bear degu. Berbizte bat baldin badator-kigu erriberatarrengandik, Zangotza, Erronkari ta Auritz aldetik; Iruña, Lizarra ta beste aldeetatik, guk emen ¿zer egin bear degu? ¿besteak egiten dutenari begira egon? Badegu noski nundik asi! ¡O, Baztan... ¡Bertiz-Arana! Doneztebe! Sunbilla ta Bidaso'ko bost-erriak! Gure Jainkoak ala nai-ta, Kontserbatu izan da —zalantzetan bederen— gure euskera gixo au, bañan ez alegiñak jarri ditugulakotz zaitzearren, zabaltzearren ta maitatzearren. Lotsagarri baida gure erri auetan pasatzen dana. Elizondo'ko gazte geienek, ez dakite euskeraz. Irurita'koek ere ez. Oronoz'en, ogei urtetik beerakoak, erdiak ez dakite. Donezteben, lauetatik iruk ez dakite. Beran, beste orrenbeste esan dezakegu. Lotsagarri benetan. Bañan, egia.

Uste dut askok jakingo dezutela orain dela aste batzuek, Naparro'ko eguneroko batzutan, ze «polemikak» izan diran euskerari buruz. Zorionez, gizon ta emakume jakintsu asko izan dira itz egin dutenak ta beren iritziak eman dituztenak gai oni buruz. Baten batek esaten zuen, euskeraren etsairik aundienak, gure errietako apaiz ta mai-xu asko zirala. ¡Ze egi jatorra! Nik ere, iñortxori miñik eman gabe, «baitez» esaten dut. Ez denentzat, zorionez, bañan bai askorentzat. Zer nai dezute etsai aundiagorik izatea gure erri auetan edo oietan pasatzen dana ikusi-ta baizik apaiz batzuekin? Batutako erri oietan «bilingüe», au da, euskeraz ta erderaz egin bearr. daukate gure apaiz-ek, zoritxarrez; bañan, gure erreka ontako ta Bida'ala aldeko erri askotan badira eunetik bat erdaldun alletzen ez dana ta ala ta guztiz ere, bi edo iru mezak erderaz ta aur gaixoeri dotriñu dena erderaz ematen zaiena. Au, EUSKERARI laguntzea al da? Ori ez al da alperkeri, zikoizkeri ta zitalkeri bat?

Iñor ez da nor erri baten izkuntza, oiturak, erlijioa ta beste gauzak menperatzeko ta zokoratzeko. Apaizak, maixuak ta denek, aintzat artu bear dituzte erriaren eskubideak. Iñor ez dedilla ausarditu berak nai duena egitera izakera guzien jaun ta jabe dalakoan.

GORTARI TA UGARTE YON



Kateximan: apeza ari da dotriña ikas behar dutela adierazten eta bati galdetzen dio:

—Pedrito. Nora joaten dira dotri-na ikasi nahi ez duten aurrak?
—Pillotan jokatzera, Jauna!

Medikuan:

—Zer egin behar dut metzeko?
—Galtz egiten ari...
—Bazkal aurrean edo bazkal ondoan.
—Bazkal orde.

Amak:

—Ez dizut bein baño geiagotan esana oiñetakoekin ez sartzeko zure oatzean?
—Ama! Ez da nere oatzea! Edur-nerena da...

Afrikan:

Gizon bat bi nekatorekin ezkontzeko asmotan eldu da misiolariaren-gana.
—Bat aski duk, esaten dio.
Egun batzuen buruan berriz eldu da, aietako batekin.
—Eta nun duk orai bestea?
—Jana.

Arrantzaria ari da ur baztarrean amurik gabe arrantzan. Pasatzen direnak erotako artzen dute.

—Arrai asko arrapatu duzu, adiskide?

—Bai; zu ogeigarrena. Denek ala galdetzen didate.

Ostatuan:

—Nahi diazu sinestuzi au basa katua zela?

—Ni bezela teilatuz teilatuz ibili bazina arrapatzen, esango zinuen basa zen edo ez!

Anai arreba txikiak asarraturik:

—A mutiko zarra! Ez aiz lotsatzen ire arreba txikiari ala jotzen?!

—Bere faltaz. Adam eta Eba ginelata, ari ginen jokatzeko. Sagarra artu du eta neri eskeiñi bearrean, berak nun jaten duen. Dagola orai or negarrez.

Aur txikiak:

—Ama! Gizon bat ikusi dut zaldi egiten ari zena.

—Zaldi egiten! Eta nola egiten zitu-tuen?

—Pixka batengatik ez dut ikusi burua ta tripak sartzen. Ni aillatzean zapetak josten ari zen...


“OLENTZERO,, Naparroan

Berriz ere eta aintzineño urteetan bezelaxe gure «Olentzero» tripa aundi eta ardozalea basoetatik jexi zen gure errietara.

Euskalerriak urteoro agurtzen du, eta gendea multzoka ateratzen da Eguberri bezperan «Olentzero» delako ikazkiñ gizen eta arlotea ikustera.

Naparroan, batez ere Lesakan, Leitzen, eta Iruñean, «Olentzero» lasaiki gure mendietatik etorri da. Iruñean gero eta gende ugariago biltzen da karrizak-karriz «Olentzero» laguntzeko. Irurogeien bat txistulari, eunaka mutil-neska dantzariak, akordeonistak, eta aurten Iturengo «Ttunturrek» famatuak gure «Ikazkiñ zaharrak» eraman zituen bere aldamenian. Bai ongi lagundu ziotela Iruñeko semiek etorri berri zena!

Datorren urte arte bada!



“OLENTZERO” IRUÑE'N

Gipuzku aldetik

Berriro idaztiak artu eta ikasketari ekiteko garaia iritxi zitzagun. Lengo illaren bigarren egunean asi genun 1967-68'ko ikastaroa, ta udara ondo igaro ondoren gogoz asi ere.

Gure erritik irtetzerakoan bagenun naiko kezka: ikasleak, irakasleak, ikaskideak... zenbat lagun berri ezagutu bear ote ditugu? Gure galdera onen erantzuna zoragarria dala ezin ukatu.

Naparru aldeko neska talde bat ezagutu al-izan degu. Euskaldunak eta jatorrak denak, eta Ikastoletan euskeraren alde lan egiteko prest daudenak.

Lengo urtean gipuzkuar eta bizkaitarrak giñan geienok. Naparra bat bakarrik: Leitza'koa. Araba'korik iñortxo ez. Ori ikusi eta kezkatu jartzen giñan. Bi lurralde oiek baztertu xamartuak ote ditugu? edo bildurtu egi ten ote dira? Aurten eta zorionez ezetz ikusi dugu.

Araba'tik 3 ditugu, Naparru'tik berriz 5. Bi erki oiek ez dira ez baztertuak, ez dira ez bildurtiak.

Naparru euskal erkirik aundiena dugu ta gogoz zaitu bear degu. Euskeraz itzegiten dan errietan eutsiaraziaz eta mintzatzen ez danetan berpiztuaraziaz badegu zer egiña pranko.

Erri baten gora-beran izkuntzak zer ikusi aundia du.

Euskerarik gabe Euskal-erria zer?

Orain arte goitik bera gentozen. Izkuntza Egoaldetik Iparraldera bultzaka genkarri, Kantauri Itsasoan urazpiratu nai genduala zirudien.

Zorionez esnatzen goaz eta estu-estu ito zorion gendun pitxia zabaldu nai degu. Orra or Naparru zarreko neska gazteak jo ta kean asi nairik.

Berri au oso pozgarri zaigu, Bizkai eta Gipuzku bakarrik ez baigera Euskal-erri. Naparra, Araba, Zuberoa eta Lapurdi, denok osatzen degu erri zaar bakar bat.

ITZIAR BIKENDI

“Napar, euskalduna alzera”?

Adiskide: Euskalduna alzera? Euskaldun egitez, ez erratez bakarrik. Berriz-ere: Euskalduna alzera, napar? Ala balimbezera, anaiak gera. Bai. Ezduzu au sifestu nai baño egia dela ezin dirazu ukatu. Ez al gera izakera berakoak? Ez gera biok Euskal-erriko semeak noski? Ukatzten dirazu, au ikusi ondoren, anaiak gerala, izautu ez arren?

Lesakako semea naiz ni, ta, an, baserrian jayo nintzelako, euskara ikasi nuan, txutik beziñ aguro (laster).

Orain, amasei urten burun, erdaldunen tartean nago, emen, Gipuzkoako ikastetxe onetan. Baño, egia gorde gabe, euskerarentzako dauzkat nere gurasoentzako beziñ oroi-pen agurgarriak. Nola utzi, Naparroko euskaldun guzietatik zerbait errateko modua? Ementxen naukatzute, bai!

Naparroa, gure erri maitagarri onek, badauka zer ikusirik euskerakin. Batzuek diote, antziñeko naparrak, «Naparren izkuntza» deitzen ziotela euskerari. Ta onek zerbait erran nai digu, Izan ere, urte aunitz, Naparroan zagon euskal garbi ta zabli ura. Orain billatzen ari geran euskara ori emen zagon, Naparren eskuetan, gure antziñekoen biotzetan. Gero, bi edo irueun urtez, erdarak irauzi zitun erri aunitz; baño lengo euskara ura etzen oso gorde. Emen utzi zuan biotz erdia, lurren azalean, autsaz ingurutua ta gordia.

Orain, Naparroko Diputazioak, lanean gogor dabil euskara zabaldu naizik; autsa kendu naizik, euskera garbia agertu dedill berriro; Euskalerriko balio aundienak gorde naizik. Baño ezdago bakarrik: «DIARIO DE NAVARRA»k, «PENSAMIENTO NAVARRO»k ta bertez napar aunitzek lagundu nai diogu bide onetan, ta, egitez, laguntzen ari gera, fider. Eskoletara sartzeko asmoak-ere dabiltzala erran biarrik ezdago. Solas batez: *Euskera, denan esku-bidean utzitzeko gogoa daukate, etzatala iñorrek erran: Ezdaukat biderik euskara ikasteko.*

Gauzok denak zoriongarriak dira, benetan: baño nik, bertez gauztxo bat iratsiko nuke, asmo eder okeri: Ez al litzake obeagua izanen, Naparroko guraso guztieri ikusiratzia, Euskara yakittea gauz zoragarria izanen dela, bertez bortz-sei urten buruan, eben aurrerik euskeraz mintzatzen irautxi dedill txiki-txikitik? Etzen au izanen biderik obena euskara banatzeko iskiñ guztietara ta, batez ere, euskara, bere lenbiziko

mintzaera bezela, bizi guzian gordezteko? Zortzi urtetan erdaraz ikastea ezda berte munduko gauza, baño, bein aunditto ezker, euskara ikasten asitzea gaisto ikusten dut.

Baño, ortziok ba koxka! Orreker badauzka bere trabak, ta ez nolanaikoak gañera: badira batzuek, txikitik txikitik euskera ikasi zutenak, baño orain, zabarkeriz, galtzera utzitzen ari diranak. Okerragoa: Galdu naizik dabiltzanak, arrazoi bat edo bertzian gatik, ta aunitzetan, arrazoikan gabe. Okeri, gauz bat edo bertzia erran, alferrik da. Okintzako, euskara eskolatara eraman edo ez. berdiñ zaizio. Ta zoritxarrez, gauzotik edo idurixoak puska ikusten dira emen bertan, Naparroan. Gazte aunitzentzako, euskeraz mintzatzea elkarren artean lottsagabekeri ta bieltzasun bat iduitzen zaio. Ezdizu zuri gertatu, neska-mutil bateri euskeraz zerbait galdetu ta irrixko egiten, erran naizik ezdula yous ere nai ikusi orrekin? Niri, gauz onek arritua utzi ziran, ezda oraindik illabete aunitz, Yruñi ondoko erri baten. Zen negargarria dan gauz au! Gurasoak utziko gauzak ez gorde naizik!!

Orain, ez uste denak olakoak dirala. Badire ez gutxi, Euskalerrian ez yayoak izan arren, emen bizi diralakoz, euskara ikasteko sukarra daukatena. Okintzako, eskoletara eramatia, erdiz-erdi ongi eldu zio. Ezdut zergatik ukatu bearrak, lenbiziko egunak oso zallak dirala okintzako ere. Berri-berriak, aurrak bezela, asitzea ori ezda oso naigarriz izanen. Aste aunitz agonto biar, solas bat, bere maneran egitekotanez.

Baño, bi urte burun, zer? Ikasi duna ura ezdio iñorrek kenduko, ta, berak nai balin badu, beti atzintzen (aurreratzen) yuanean da.

Bai, egitan. Euskara irakuste ori gauz oso ederra da. Yrautxi ta zabaldu, ezkaltenerari. Zuzendu, gauzti ikasi duteneri. Ta onetarako, zure laguntzen biarrian gaudezi. Zu gabe ezin gera urrutxi alletu.

MAITATU BA, EUSKARA, NAPAR; BERAK MAITATU ZITZUN LENBIZIKO TA!!

Ez dugu zaldirik ez gera zaldunak ez dugu dirurik ez gera aberatsak; Euskara dugu guk, Gu gara EUSKALDUNAK!!

Antonio ERKIZIA ALMANDOZ (amasei urte)